BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIKO GUNE EZBERDINAK ERATZEA KONTRATATZEKOA

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

I.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuak Donostia Zinemaldiko aipatzen diren gune ezberdinak eratzeko materialen alokairua, garraioa, muntaketa eta desmuntaketa du xede.

Honako plegu honetan, behar den materiala eta eskaini beharreko zerbitzuak ageri dira.

Lizitazio honetatik kanpo geratzen dira plegu honetan barne hartu ez diren materialak, eta esleipendunak ez diren hirugarrenei kontratatu ahal zaizkie, programatu nahi den ekintzaren ezaugarriek eta beharrek eskatzen badute.

II.- HORNIKUNTZAK ETA ESKAINI BEHARREKO ZERBITZUAK

1.- Manpara eta binilo xafla

a) Advantec motako edo antzeko manpara eta atea alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea, Industriarako, Tabakalerarako, Koprodukzio Fororako eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako. Gutxi gorabeherako neurriak: 2,5m eta 3m-ko altuera eta 1m-ko zabalera. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 2,5m-ko altuerako 136 panel eta 4 ate. 3m-ko altuerako 60 panel.

b) Industriarako, Tabakalerarako, Koprodukzio Fororako eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako, binilo xafla malgua (2,5m eta 3m), itsasgarria duena, zehaztu beharreko kolorekoa, hornitzea, muntatzea eta desmuntatzea Advantec motako edo antzeko manparetarako (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 270 binilo xafla.

2.- Instalazio elektrikoa

a) Hartune bateko korronte-puntua hornitzea, instalatzea eta desmuntatzea, Industriarako eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako (Unitatea).

b) 2 hartuneko korronte-puntua hornitzea, instalatzea eta desmuntatzea, Industriarako eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 34 korronte-puntu.

c) Stand-erako babesa duen 3,3kw-ko banakako koadro elektrikoa hornitzea, instalatzea eta desmuntatzea, Industriarako eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 5 koadro.

d) Advantec motako edo antzeko manparetarako 150 watio-ko led-fokua, Industriarako, Tabakalerarako eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 13 foku.

3.- Mahaiak

a) Industria bulegorako behealdea duen laneko mahaia (1600mm x 800mm eta 720mm-ko altuera, gutxi gorabehera) alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta y desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 9 mahai.

b) Industriarako 8 pertsonentzako bilera-mahaia (2000mm x 1200mm x 720mm, gutxi gorabehera) alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: mahai bat.

c) Industria eta Koprodukzio Foroko aretorako bilera-mahaia (700mm-ko diametroa, hanka erdian eta 720mm-ko altuera, gutxi gorabehera) alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 60 mahai.

d) Zinemaldi Plazako leihatiletarako behealdea duen laneko mahaia (1800mm x 800mm eta 720mm-ko altuera, gutxi gorabehera) alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 10 mahai.

e) Industria, Koprodukzio Foroa eta Tabakalerarako diseinuzko mahai baxua (700mm-ko zabalera, 400mm-ko sakonera eta 500mm-ko altuera) kristalezko goialdea duena, alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea, sofa multzo batekin batera jartzeko. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 2 mahai.

f) Industriako hall-erako eta Koprodukzio Fororako bilera-mahai altua (600mm-ko diametroa, hanka erdian eta 1100mm-ko altuera, gutxi gorabehera) alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 18 mahai.

g) Industria, Koprodukzio Foroa eta Tabakalerarako diseinuzko mahai baxua (500mm-ko zabalera, 500mm-ko sakonera eta 500mm-ko altuera), egurrezko goialdea duena, alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea, sofa multzo batekin batera jartzeko. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 2 mahai.

h) Industriarako gurpildun mahai osagarria (800mm-ko zabalera, 600mm-ko sakonera eta 1000mm-ko altuera, gutxi gorabehera) alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea, ikuskaldien gelako PC pantaila eta ordenagailurako. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 2 mahai.

i) Industria, Koprodukzio Foroa eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako tiradera-altzari gurpilduna, 3 tiradera eta giltza dituena, alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 16 tiradera-altzari.

4.- Aulkiak

a) Industria, Koprodukzio Foroa eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako bulegoko aulki birakaria, bizkarralde altua eta gas bidezko goratzea duena alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 21 aulki.

b) Industria, Koprodukzio Foroa eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako bisitari aulkia, tapizatutako bizkarraldea eta eserlekua dituena (edo polipropilenozkoa edo antzekoa), alokatzea, garraiatze, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 4 aulki.

c) Industria, Zinemaldi Plazako leihatilak eta Koprodukzio Fororako bilera mahaietarako aulki modernoa, tapizatutakoa edo polipropilenozkoa, alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).

2021erako beharren aurreikuspena: 225 aulki.

5.- Armairuak

a) Industria, Koprodukzio Foroa eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako oin atea, apala eta giltza dituen armairu altua (1900mm-ko altuera, 900mm-ko zabalera eta 420mm-ko sakonera) alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 2 armairu.

b) Industria, Koprodukzio Foroa eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako stand-ean jartzeko, oin atea, apala eta giltza dituen armairua (700mm-ko zabalera, 400mm-ko sakonera eta 700mm-ko altuera, gutxi gorabehera) alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 21 armairu.

c) Industria, Koprodukzio Foroa eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako 4 apal dituen metalezko apalategia (1000mm-ko zabalera, 500mm-ko sakonera eta 1800mm-ko altuera) alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: apalategi bat.

6.- Bestelako altzariak

a) Industria, Koprodukzio Foroa eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako zutik mantentzen den esekitokia alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 2 esekitoki.

b) Industria, Koprodukzio Foroa eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako altzairu herdoilgaitz edo polipropilenozko zakarrontzia alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 40 zakarrontzi.

c) Industria, Koprodukzio Foroa eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako PC euskarria (500mm-ko zabalera, 500mm-ko sakonera eta 1100mm-ko altuera, gutxi gorabehera) alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea, zutik kontsultak egiteko. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 4 euskarri.

d) Industria, Koprodukzio Foroa eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako publikoari arreta emateko mahaia (1000mm-ko zabalera, 600mm-ko sakonera eta 1100mm-ko altuera, gutxi gorabehera) alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 5 mahai.

e) Industria, Koprodukzio Foroa eta Zinemaldi Plazako leihatiletarako bizkarraldea eta oinazpiko uztaia dituen taburetea alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 40 taburete.

f) Industria eta Koprodukzio Fororako katalogoak gordetzeko euskarria, metakrilatozkoa edo antzekoa (500mm-ko zabalera, 40mm-ko sakonera eta 1200mm-ko altuera, gutxi gorabehera) alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: euskarri bat.

7.- Sofak

a) Industria, Koprodukzio Foroa, Tabakalera, Inaugurazio Festa eta Klausura Festarako 3 plazako larruzko, larru artifizialeko edo antzeko diseinuzko sofa bat alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: sofa bat.

b) Industria, Koprodukzio Foroa, Tabakalera, Inaugurazio Festa eta Klausura Festarako 2 plazako larruzko, larru artifizialeko edo antzeko diseinuzko sofa bat alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 4 sofa.

c) Industria, Koprodukzio Foroa, Tabakalera, Inaugurazio Festa eta Klausura Festarako plaza bateko larruzko, larru artifizialeko edo antzeko diseinuzko sofa bat alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 8 sofa.

8.- Manpara autosostengagarria

Manpara autosostengagarria, Industria eta Koprodukzio Fororako, modularra (1900mm-ko altuera eta 1200mm-ko zabalera, gutxi gorabehera), eta angeluak sortzeko aukera emango duen postea duena, alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. Espazioak eta bulegoa bereiztea eta iragarki taula lana egitea du helburu. (Unitatea).

2021erako beharren aurreikuspena: manpara bat.

9.- Leihatiletarako elementuak

a) Zinemaldi Plazako leihatiletarako egurrezko kuboak (800mm-ko zabalera, 800mm-ko sakonera eta 1000mm-ko altuera), alde batetik binilatuak eta kolorea zehazteke dutenak, garraiatzea, margotzea, muntatzea eta desmuntatzea, zutik kontsultak egiteko. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 5 kubo.

b) Zinemaldi Plazako leihatila postuak zenbakitzeko egurrezko euskarriak (kolorea zehazteke) garraiatzea, jartzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 10 euskarri.

10.- Bestelako elementuak

a) Perretxiko formako berogailua, “corona” modelokoa edo antzekoa, altzairu herdoilgaitzezkoa, gurpilekin eta 13 kw-ko potentziarekin, alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea, butano-bonbona barne. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 12 berogailu.

b) Katenaria-zutoin erretraktila, 2 eta 3 metrotan zabalgarria, kolorea zehaztu gabe, alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea, Industria, Koprodukzio Foroa, Tabakalera, Inaugurazio Festa, Klausura Festa eta zinema-aretoetarako. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 70 zutoin.

c) Diseinuko zutikako lanpara halogenoa edo led motakoa alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. (Unitatea).
2021erako beharren aurreikuspena: 2 lanpara.

d) Truss motako egitura alokatzea, garraiatzea, muntatzea eta desmuntatzea. Dekoraziorako diseinuko egitura espaziala, 300x300mm-ko lau angeluko aluminio kromatu leundu/distiratsuko akaberarekin, konexio azkarreko sistema batez osatua –torlojuen eta zirien bidezkoa- eta barne langetaz hornitua, edozein motatako deformazioak edo egituren desplazamendua saihesteko (metro lineala).
2021erako beharren aurreikuspena: 12 metro lineal.

III.- MATERIALAREN ERABILGARRITASUNA

Enpresa esleipendunak biltegi bat edukiko du, gutxienez, ondoren adierazitako materialak gordetzeko:

- Advantec motako 300 metro lineal manpara, plegu honetako II.1.a) klausulan adierazitako ezaugarriekin.

IV.- ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Muntaketa Zinemaldiak adieraziko duen egun eta ordutegian egingo da, orientagarri gisa:

- Zinemaldi Plazaren muntaketa, oro har, Edizioa baino 9 egun lehenago hasiko da.
- Leihatilen gunearen muntaketa lehen muntaketa egunean egingo da eta goiz batean egitea aurreikusten da.
- Industria gunearen muntaketa lehen muntaketa egunean hasiko da eta gehienez lehen 3 egunetan egin beharko da.
- Zinemaldi Plaza osoaren desmuntaketa Klausura egunean egingo da eta 14 ordutan egitea aurreikusten da.
- Koprodukzio Foroa igandean muntatuko da egun osoan zehar.
- Koprodukzio Foroa bi zatitan desmuntatu ahal izango da, horietako bat goizaldean.

Muntatzea eta desmuntatzea laneguneta n, jaiegunetan edo gauez egin ahal izango dira eta honek ez du aldaketarik eragingo lizitatzaileek eskainitako prezioan.

Edonola ere, materialek estetika eta garbitasun baldintza egokiak izan beharko dituzte.

Ez da enpresa esleipendunaren eta besteren publizitaterik onartuko.